

Balorezko proposamena

Sarreran adierazi bezala, gaur egungo gizartean gure aisialdiaz gozaten laguntzeko askotan jostailuez baliatzen gara, eta behin jostailu horietaz nazkatu edo apurtzean, zaborretara botatzen ditugu, oraindik aprobetxagarri daudenean edo konponketa bat egin ahal zainean.

Gure enpresaren proposamen nagusia, beste pertsona batzuk jada nahi ez dituzten jostailu horiek jaso, konpondu eta berriro merkaturatzea izango da. Jostailu horiek merkaturatu zirenean bezala konpontzen saiatuko gara, baina, prezioak ahal den moduan jaitsez.



Flzken batean gure enpresaren helburu nagusietako bat, jende behartsuari edo aukera gutxiago dituenari laguntzea da eta. Gaur egungo kalitatezko jostailuak garestiak direnez, eta horrelako zerbitzurik eskaintzen duen enpresarik ezagutzen ez dugunez, proposamen honekin gatozkizue.

Gure enpresaren balioa, gehienbat kuantitatiboa izango litzateke, baina apurtxo bat kualitatiboa dela ere esan daiteke.

Lehiakiderik ezagutu ezean, enpresa berritzaile bat dela esan dezakegu arreta erabat pertsonalizatuarekin. Beste batzuei lana errazten ari garela ere esan dezakegu. Izan ere, askok esfortzu handiak egin behar izaten dituzte dirua aurrezteko, normalean data seinalatuetan noski. Flzken finean, umeez zein ez hain umeez opari duin batzuk jaso ditzaten nahi dute denek, eta horrela jostailu berdinak askoz ere modu eskuragarriago batean jaso.

Adierazi dugun guztiaz gain, orain asko entzuten ari garen beste arazo sozial batekin ere lotua dago gure proiektua. Gizakiok, geroz eta hondakin gehiago sortzen ari gara, eta jada ez dakigu hondakin horiekin zer egin. Zoritxarrez hondakin horietako askok itsasoan bukatzen dute, eta jakin beharko genuke, geure ekintza txar horien ondorioz geure buruari naiz planeta osoari kalte besterik ez garela ari egiten.